

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektuaren helburua da ikastetxeetara gure soluzioa iristea modu errazean eta ulergarrian, eta horretarako hainbat kanal erabiliko ditugu. Nagusia Internet izango da, batez ere posta elektronikoa eta sare sozialak. Horren bitartez, ikastetxeei aurkeztuko diegu gure balio-proposamena, hau da, Reset Room gelak eta pinganillo adimenduna nola laguntzen duten ikasleen ongizatea eta kontzentrazioa hobetzen. Kanalen bidez, ikastetxeek proiektuari buruzko informazioa jasoko dute, galderak egin ahal izango dituzte eta lehen kontaktua sortuko da.

Gelak eta pinganilloak zuzenean ikastetxeetara eramango ditugu garraio-enpresa baten bidez. Produktu fisiko guztiak tokira bidaliko dira ikastetxeek denbora eta ahalegina aurrezteko.

Gure produktua eta zerbitzua saltzeko bide nagusia online izango da, webgune baten bidez, non ikastetxeek eskaerak egin eta ordainketak egin ahal izango dituzten. Horrela, prozesua erraza eta azkarra izango da, eta ordainketa finkoa edo kuota errepikariak egiteko aukera ere ematen du.

Bezeroarekiko harremana ahalbidetzeko bost fase jarraituko ditugu. Lehenik pertzepzioa, ikastetxeek gure proiektuaren berri izango dute webgune eta sare sozialen bidez. Ondoren ebaluazioa, informazio gehiago jasoko dute eta bideoak edo aurkezpenak ikusi ahal izango dituzte. Gero erosketan online eskaera eta ordainketa egingo dute. Entregari dagokionez, gelak eta pinganilloak ikastetxera bidaliko dira. Bukatzeko, salmenta ondorengoa, jarraipen tekniko eta laguntza eskainiko dugu, sistemak beti ondo funtzionatzeko.

Laburbilduz, gure kanal nagusiak online komunikazioa, webgune bidezko salmenta eta banaketa fisikoa garraio bidez dira. Horrela, gure balio-proposamena modu errazean, seguruan eta eraginkorrean iristen da ikastetxeei.